

**I . B I D E B E R R I
M A N K O M U N I T A T E K O
D R O G A M E N P E K O T A S U N E N P L A N
L O K A L A 2 0 0 9 - 2 0 1 3**

Aurki bi dea

1.Sarrera- Aurkezpena

2.Udal-eskumenak

3.Drogamenpekotasun fenomenoaren analisi orokorra

- a. Gizarte-eragileen balorazioa
- b. Kontsumoak
- c. Ondorioak

4.Helburuak

5.Landu beharreko arloak- Esku-hartze eremuak

6.Ebaluazioa

1. SARRERA- AURKEZPENA

Antzuola, Leintz-Gatzaga eta Elgetako udalerrri gipuzkoarrek Bideberri Mankomunitatea eratu dute, eta euren udaleko gizarte-zerbitzuak zuzendu, garatu eta bultzatzeko asmoarekin sortu ere. Honela "Bideberri Mankomunitateko Drogamenpekotasunen Prebentzioarako I Plan Lokala" sortu da.

Euskadin drogak betidanik izan direla gauza jakina da, baina kontsumoa eta problematika lantzeko moduak garaiaren arabera aldatzen dira. Gaur egun ere fenomenoak kezkatzen gaitu, eta alarma sozialik ez dagoen arren, fenomenoari ekiteko beharrezana argi eta garbi ikusten da.

2. UDAL-ESKUMENAK

Drogamenpekotasun alorreko 18/1998 legearen arabera, EAEko herri-administrazioek udal eta mankomunitateei emandako eskumenak honako hauek dira:

- A. Drogamenpekotasunen Plan Lokal bat egitea eta garatzea Drogamenpekotasunen Planean dauden preskripzioekin bat datorrena.
- B. Aldundiekin batera, eta euren eskumenen eremuan, Drogamenpekotasunen Aholku Batzordearen antzeko funtzioekin Drogamenpekotasunen Kontseilu Foral eta Lokalak eratzea.

Eskumen espezifikoak:

Legeak esku hartzeko hiru eremu planteatzen ditu:

- Prebentzioa eta eskaintzaren kontrola
- Laguntza
- Gizarteratzea

3. DROGAMENPEKOTASUN FENOMENOAREN ANALISI OROKORRA

➤ Gizarte-eragileen balorazioa

Bideberri Mankomunitateko gizarte-eragile desberdinei egindako elkarrizketetan honako datu hauek jaso dira:

ALKOHOLA

Bideberri Mankomunitatean gehien agertzen den kontsumoa alkoholarena da. Erabat onartutako eta barneratutako substantzia dela komentatzen da, baita kultura mailan ere.

Alkoholaren kontsumorako arrazoiak gizarte arlokoak dira, batik bat harremantzeko kontsumitzen da, adin guztietara hedatzen den gertaera.

Kontsumoan nolabaiteko aldaketa joera ikus daiteke, eguneroko kontsumoa izatetik asteburuko kontsumoa izatera pasatzen ari delarik. Pertsona helduen artean betiko "txikiteoa" hor dagoen arren, galdetutako gizarte-eragile gehienek desagertzera jotzen duela komentatzen dute.

Bideberri Mankomunitatearen barnean ez da ikusten alkohol kontsumorik gazteen artean, ez dagoela esan nahi ez duen arren, gazteek kontrolatuta eta zelatuta sentitzen ez diren hurbileko udalerrri handiagoetara joateko ohitura baitute. Aldiz, herriko jaietan kontsumoa nabaria da, eta horrez gainera gehiegizkoa. Sexuari erreparatuta ez dago alde nabarmenik, neskek zein mutilek berdintsu kontsumitzen dute.

Alkohola-gidatu binomioa esan dutenaren arabera kezagarria da:

"Garraio publikoko zerbitzuak herrian urriak dira eta kotxearen menpekotasun handia dugu. Gai horren inguruan gazteek helduek baino kontzientzia gehiago dute (gautxoriak eta taxiak erabili ohi dituzte)"

Pertsona helduen artean alkoholismo kasu bakanak daude, oso adierazgarriak ez badira ere.

TABAKOA

Tabakoaren kontsumoa orokorrenetarikoa da, nahiz eta galdetutako gizarte-eragile gehienek gero eta pertsona gehiagok erretzeari uzten diotela komentatu.

Gazteen artean tabakoaren kontsumoa gutxitu dela eta emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago kontsumitzen dutela ere uste dute.

Tabakismoari buruzko lege berriak aisiaren eremuan (kafetegietan erretzea debekatuta badago ere) ez duela eragin handirik izan komentatzen dute; baina bai lan eremuan, non bi enpresak tabako kontsumoaren ohitura galtzeko ikastaroak egin dituzten.

KANNABISA

Gaur egun Bideberriko Mankomunitatean kannabisa legearen kontrako drogarik kontsumituena da. Kontsumoa gero eta orokortuagoa eta normalizatuagoa da, batik bat nerabezaroan eta gaztaroan.

Marihuana hatxisa baino gehiago kontsumitzen da, norberak landatzea oso hedatuta baitago; eta horrez gainera kontsumitzaileek marihuana naturalagoa dela uste dute eta beraz osasunerako hatxisa bezain kaltegarria ez dela.

Elkarrizketatutako gizarte-eragile gehienek gizonezkoek emakumezkoek baino maiztasun handiagoz eta kantitate handiagoetan kontsumitzen dutela uste dute.

Nerabeak kontsumitzeko ezkutatu egiten direla komentatzen dute ere, baina adindunek Bideberri Mankomunitateko kale eta zenbait tabernetan normaltasun osoz kontsumitzen dutela.

Kontsumitzeko adina gutxi gorabehera nerabezaroa eta 40 urte artean kokatzen da eta kontsumitzeko arrazoirik orokortuena soziala da, pertsonen arteko harremanetan kontsumitzen da.

LEGEAREN KONTRAKO BESTE ZENBAIT DROGA

Galdetutako gizarte-eragileek legearen kontrako beste zenbait drogen kontsumoa ez dela hautemangarria komentatzen dute, kontsumitzaileak ezkutatu egiten baitira. Halere, kokaina, anfetaminak eta estasia ere hor daudela badakigu baina ezkutuan daude.

➤ Kontsumoak

Drogamenpekoatasunen Euskal Behatokiaren "Euskadi eta Drogak 2006" txostenak emandako datu berrienak honako hauek dira:

Alkohol kontsumoak:

	Noizbait	Azken urtean	Azken hilabetean	Egunero edo egunero ia
15-19 urte	%92,3	%86,0	%75,6	%0,3
20-24 urte	%97,3	%92,6	%84,5	%3,7
25-29 urte	%97,5	%90,2	%81,5	%6
30-34 urte	%96,2	%87,1	%76,3	%9,7
35-44 urte	%95,6	%85,3	%75,4	%18,9
45-54 urte	%96,3	%84,9	%75,4	%31,9
55-64 urte	%93,5	%77,0	%66,3	%42,2
65-74 urte	%88,7	%69,7	%61,3	%41,3

Tabako kontsumoak:

	Ez erretzailea	Erretzaile ohia	Erretzailea
15-19 urte	%51,00	%6,00	%33,60
20-24 urte	%40,00	%9,00	%45,80
25-29 urte	%44,50	%11,00	%40,10
30-34 urte	%37,10	%22,80	%32,90
35-44 urte	%32,50	%26,40	%36,50
45-54 urte	%29,00	%28,60	%35,30
55-64 urte	%45,20	%33,20	%20,30
65-74 urte	%59,70	%30,70	%8,60

Kannabis kontsumoak:

	Kontsumo esperimentalak	Azken aldiko kontsumoa	Gaur egungo kontsumoa	Eguneroko kontsumoa
15- 19 urte	%57,20	%47,60	%39,00	%13,30
20- 24 urte	%65,30	%38,20	%31,50	%10,20
25- 34 urte	%56,90	%26,60	%20,40	%7,50
35- 44 urte	%51,50	%11,70	%8,80	%2,50
>45 urte	%12,30	%0,90	%0,70	%0,40

Beste zenbait drogen kontsumoa:

	Kontsumo esperimentalak	Azken aldiko kontsumoa	Azken hilabeteko kontsumoa
Anfetaminak	%8,80	%2,40	%1,10
Estasia	%2,60	%0,60	%0,30
LSDa	%4,30	%0,90	%0,70
Kokaina	%8,10	%2,60	%1,40
Cracka	%0,30	-	-
Heroina	%1,00	-	-
Beste opiazeo batzuk	%0,10	-	-
Inhalanteak	%0,40	-	-
Mongiak	%3,70	%0,50	%0,10
Ketamina	%0,80	%0,10	%0,10

➤ Ondorioak

Drogamenpeketasunen fenomenoari buruzko ondoko datu eta joerak atera ditzakegu:

- ❖ Lehen droga kontsumoetan gero eta gazteago hasten dira, nerabeen igoera kezkarria izanik.
- ❖ Lehen droga kontsumo horietan eta tabakoa, alkohola eta kannabisaren deribatuen kontsumoei buruz arrisku gutxiren pertzepzioa.
- ❖ Testuinguru eta giro jakinetan zenbait drogen erabileraren normalizazioa.
- ❖ Jende asko dagoen aisialdi testuinguruetan kontsumo konpulsiboak.
- ❖ Baliabide ekonomikoak dituen edozein pertsonarentzat legezko eta legearen kontrako drogak lortzeko erraztasuna.

4. HELBURUAK

Bideberri Mankomunitatean drogamenpekotasunen fenomenoaren azterketa sakona egin ondoren, "Bideberri Mankomunitateko Drogamenpekotasunen Prebentziorako I Plan Lokalean" lantzeko lehentasunezko bideak honakoak direla uste dugu:

Helburu orokorrak:

Bideberri Mankomunitateko kolektibo guztien eskura dagoen prebentzioan aritzeko egitura osatzea, honako hau eginda:

- A. Familia mailan parte hartzea eta heziketaren trebatzea hobetzera zuzendutako jarduerak bultzatu.
- B. Hezkuntza zentroetan prebentzioa finkatu, bermatu eta hedatu.
- C. Testuinguru ludiko eta dibertimenduzkoekin prebentzioa sustatu.
- D. Lan mailan prebentzioan aritzeko egituraren integrazio eraginkorra garatu eta sustatu.
- E. Komunikabideen bidez lan egiteko bideak bultzatu, ohitura osasungarriak sustatuz.

5. ESKU-HARTZE EREMUAK

LANDU BEHARREKO ARLOAK	JOMUGA	
Prebentzioa	UNIBERTSALA	Babesteko faktoreak, jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzea.
	SELEKTIBOA	Kolektibo eta talde ahuletan droga kontsumoen aurrean arriskuak murriztea
	EGOKITUA	Oso ahulak diren pertsonen artean kontsumo arazotsuen arriskuak murriztea
	ZEHATZA	Drogazaleen artean arriskuak murriztea eta kalteak arintzea
Eskaintzaren kontrola	Oferta murrizten eta droga trafikoa kontrolatzen laguntzea, eta era berean edari alkoholdun eta tabakoaren promozio, publizitate eta salmentetan araudia bete eragitea.	
Laguntza	Beharizan berriei moldatzeko asmoarekin Bideberri Mankomunitateko laguntza sarea egokitzea.	
Gizarteratzea	Gizarteratzea errazteko egoera ahulean dauden kolektiboenganako (gizarte-baztertze handia dutenak, presondegietako pertsonak, etorkinak eta emakumezkoak) lehentasunezko ekintzak garatzea.	
Babesa eta koordinazioa	Instituzio, erakunde eta talde teknikoen koordinazioaren bidez garatu behar diren ekintzetan lankidetzeta eta koherentzia erraztea.	

5.1. Landu beharreko arloa: PREBENTZIOA

5.1.a. FAMILIA MAILAN

Justifikazioa

Familia heziketa esparru nagusi eta oinarrizkoa da. Bertan gurasoek eta tutoreek ohitura osasungarri eta seguruak indartu behar dituzte. Ideia horrekin bat Eusko Jaurlaritzako Drogamenpekotasunen V. Planean ondoko aipamena jasotzen da: "Familiak gaitasun, balore eta jarrerak hartzeko orduan eragin handiena duen instituzioa izaten jarraitzen du".

Gaur egungo bizimoduan betebeharrak estutzen gaituzte eta gizonezko eta emakumezkoen jomuga garrantzitsua lorpen pertsonalak dira; beraz, ez da zaila zuzeneko ondorioak aurkitzea seme-alabenganako arretaren mailan eta kalitatean.

Familia bakoitzaren estilo desberdintasunekin eta ezaugarri bakarrekin egoera desberdinak egon daitezke, eta horietako edozein babes emateko eta esku hartzeko gai bihur daiteke.

Helburu espezifikoak

- Heziketa prozesuaren bidez familia mailan babesteko faltoreak bultzatzea.
- Drogamenpekotasunen prebentzioan lan egiteko Bideberri Mankomunitatean bizi diren 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiei babes ematea.
- Gurasoak sentibilizatu, informatu, formatu eta aholkatzeko parte-hartze berriak sortzea eta gehitzea.

Garatu beharreko ekintzak

-Programa ez presentziala. 0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten guraso eta tutoreei zuzendutako aldizkari baten argitalpena.

-Programa ez presentziala. Programa, hitzaldi, tailer, topaketa, ikastaro, ihardunaldi, guraso-eskola, eta abarren bidez gurasoak orientatzeko eta aholkatzeko.

- Alkohola eta kannabisaren kontsumoei buruz eztabaidatzeko eta formatzeko guraso eta seme-alaben arteko topaketak, foroak.
- Orientazio eta informazio zerbitzua. Droga eta drogamenpekotasunekin lotutako orientazio zerbitzua honako kasuetan eskaintzen da: adingabekoen artean droga kontsumoak direla-eta kezka dagoenean eta tratamendu zentroein buruzko eta gaiarekin lotutako edozein egoera edo kasuri buruzko informazioa emateko.
- Seme-alaben alkohol kontsumoak direnean familien heziketa lanari babesa ematea. Drogamenpekotasunen zerbitzua eta gurasoei zuzendutako gida eskainiz, gurasoen heziketa lanari babesa ematean datza.
- Gurasoentzako material informatzaile eta didaktikoa egitea.
- Txikitandik prebentziorako programa areagotzea.
- Familiaren barnean arrisku adierazleak aurkitzeko programa
- Egoera ahuleko kolektiboak (toxikomanoak direnak, Alkoholiko Anonimoak, eta abar) gizarteratu daitezzen babesa emateko programak.
- Adingabeen esku-hartzea ingurune irekiko programetan

5.1.B. ESKOLA MAILAN

Justifikazioa

Eskola, familiarekin batera, pertsonen heziketa formazioan eragin handieneko esparrua da. Beraz, droga kontsumoen aurrean babesteko faktoreak bultzatzeko eremu ezin hobea da. Gainera ohitura osasungarriak indartzeko jarrerak lagun izan behar dituzte. Izan ere, EAEko Drogamenpekotasunen V. Planak esku hartzeko lehentasunezko esparru modura eskola adierazten du.

Familiatik irtetea eta lan bizitzarako aurrera pausu bezala, berdinen arteko eta aginte ereduaren arteko, irakasleak eta beste zenbait arduradun, harreman adierazgarri guztiak eskolan sortzen dira.

Beraz, hezitzaileek bide pedagogiko beharrezkoak izan behar dituzte irakasle lanari zeharka drogamenpekotasunen osasun-prebentziorako heziketaren paperari aurre egiteko.

Helburu espezifikoak

- Bideberri Mankomunitateko eskoletan Drogamenpekotasunen Prebentziorako eta Osasun-Hezkuntzarako programak eta jarduerak ezartzea.
- Drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea.
- 18 urtetik beherakoen artean kontsumoak gutxitzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Lehen Hezkuntzako 5º eta 6º mailako ikasleei zuzendutako formazio tailerrak egitea.
- Gizarte-trebetasun, talde-presio, autoestimua, baloren heziketa, eta abarren erabileraren formazioa.
- Irakasleentzako eta irakaskuntzan ari ez den pertsonalarentzat material informatzaile-didaktikoa egitea.
- Eskolan arrisku kasuak antzemateko sistema ezartzea.
- Jarduerak, proiektuak eta programak martxan jartzeko irakasle taldeei orientazio eta aholkularitza zerbitzua ezartzea.

5.1.C. AISIA MAILAN

Justifikazioa

Gazte eta nerabeentzat bereziki, eta orokorrean biztanle guztiontzat, sozializazioa tarte libreetako uneetan nahi duguna eta beharrezkoa da. Bertan jende askok, dituen portaeren nolabaiteko kontrola duela uste du. Gainera gazteentzat sarritan helduengandik eta dituen mugetatik urruntzeko eremua da.

Beste alde batetik, testuinguru horretako pertsonen arteko harremanetan pertsona batzuek beste zenbait pertsonak baino eragin handiagoa dute eta horrek menpekotasun harremanak sor ditzake, eta hori droga kontsumoarekin modu zuzenean lotuta dago.

Helburu espezifikoak

- 18 urtetik beherako gazteekin ekimenak garatzen dituzten kultura, kirol eta aisialdirako elkarteei laguntzea, babesteko faktore indartzaile bezala.
- Prebentziorako alorrean aisialdirako begiralen formazioa areagotzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Jai egunetan alkohola eta drogen gehiegizko kontsumoaren prebentziorako proiektuak.
- Ostalaritzako langileen formazioa.
- Aisiarako eremuetan drogen kontsumoarekin lotutako arrisku murrizketaren proiektuak.
- Ume, nerabe eta gazteei zuzendutako aisia osasungarriko jardueren eskaintza modu adierazgarrian handitzea.

5.1.D. LAN MAILAN

Justifikazioa

Dirua irabazteko balio izateaz gain, lan mundua pertsona desberdinekin modu sozialean harremantzeko ingurua da. Harreman horietan guztietan bitzta estiloer eta portaerei eragiten dieten baloreak eta jarrerak transmititzen dira.

Denbora handia ematen dugun ingurune honetan egoerak gertatzen dira eta harremanak ematen dira, eta harreman horietan emozio zama garrantzitsua egon daiteke, lan mota bakoitzari dagokion berezko atal fisikoaz gain. Horrek guztiak osasunean eragina du, eta batzuetan drogen kontsumoarekin eta euren gehiegizko erabilerarekin zerikusia duen era batean du eragina.

Helburu espezifikoak

- Lan guneetan dauden prozesu sozializatzaileen bidez ohitura osasungarriak bultzatzea eta sustatzea.
- Bideberri Mankomunitateko langileak sentsibilizatu, informatu, formatu eta aholkatzeko parte-hartzeak sortzea.
- Lan ardura duten erakunde desberdinei babesa ematea.

Garatu beharreko ekintzak

- Lan munduan tabakoa erretzeko ohitura kentzeko programak bultzatzea.
- Droga arazoak dituen pertsonen kolektiboa lanean hastea ahalbidetzeko diskriminazio positiboko ekintzak bultzatzea.

5.2. Landu beharreko arloa: ESKAINTZAREN KONTROLA

Justifikazioa

Drogamenpekotasunen eremuan fenomenoak eman dadin oinarritzeko eta beharrezko osagaiak hiru dira: pertsona, substantzia eta ingurua. Horietariko edozein osagaietan eragindako ekintzek kaltegarria izan daitezkeen prozesu baten aukera murriztuko dute.

Hori dela eta, Eskaintzaren Kontrolean lan egitea garrantzi handikoa da, kontsumitzailearentzat droga era aske eta errazean lortzea mugatzen baitu.

Helburu espezifikoak

- Eskaintzaren murrizketa eta droga trafikoaren kontrola erraztea.
- Drogak gainbegiratzeko eta polizia lanak egiteko ardura duten pertsonen beharrezkoak diren medio guztiak erraztea drogak non egon daitezkeenari buruzko informazioa jaso dezaten.
- Edari alkoholdun eta tabakoaren sustapen, publizitate eta salmentari buruz indarrean dagoen araudia bete eragitea.
- Adingabekoen edari alkoholdun eta tabakoaren kontsumoa kontrolatzea.
- Ibilgailuak gidatzeko orduan drogen eraginpean ez egiteko jagoatea, babestea eta hezteak.

Garatu beharreko ekintzak

- Polizia lanak egiteko ardura duten pertsona horiei zuzendutako drogen fenomenoari buruzko formazio saio zabalak programatzea eta egitea.
- Legezko eta legez kontrako drogei buruzko autonomiako eta udaleko araudia zabaltzea.
- Alkoholdun edarien salmentari buruzko arauak betetzeko beharrianaz saltzaileak kontzientziaztea.

Arduradunak

Eskaintzaren kontrolak ez dakartza berekin neurri polizialak eta zigortzaileak bakarrik, prebentzio neurriak eta hezitzaileak ere badakartza.

5.3. Landu beharreko arloa: LAGUNTZA

Justifikazioa

Droga kontsumoaren ondorioetariko bat adikzioa da. Era berean, osasun arazoak eta gaixotasunak garatzea zilegi da ere, bai fisikoki, bai psikikoki, bai gizarte mailan. Horrek guztiak, konpontzeko kanpo laguntza behar duen egoera batera eramán dezake.

Helburu espezifikoak

- Drogamenpektasunei aurre egiteko tartean dauden Bideberri Mankomunitateko instituzio eta erakundeak aritzeko eremu sozio-sanitarioa eratzea eta zehaztea, era koordinatuan parte har dezaten.

Garatu beharreko ekintzak

- Laguntza-egoeraren analisisa
- Gizarte-zerbitzu eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa ezartzea

Arduradunak

Diagnostiko, orientazio, laguntza eta tratamenduaren ardura hasiera batean osasun eremuari dagokio; beraz, Bideberri Mankomunitateko anbulatorioek ekin beharko diote lan horri. Era berean, menpektasun arazoak dituzten pertsoneri zerbitzuak errazteko diharduten Osakidetzako beste baliabide batzuekin eta egoitza desberdinekin koordinatu beharko dute ere.

5.4. Landu beharreko arloa: GIZARTERATZEA

Justifikazioa

Gizarteratzeaz ari garenean, herritar arduratsu eta autonomo bezala pertsona bat bere ohiko inguruan sartzeko prozesuaz ari gara. Prozesuan gizarte-integrazioaren norbere gaitasunen berreskuratzea zein pertsona drogazaleak onartzeko beharrezkoak diren gizarte-aldaketak sartzen dira.

Helburu espezifikoak

- Gizarte kide bezala droga erabilerarengatik arazoak dituzten pertsonen (prozesu terapeutikotan egon zein ez egon) gizarteratzea errazteko programak bultzatzea.
- Egoera ahulean dauden kolektiboenganako (gizarte-baztertze handiko egoeran dauden pertsonak, presondegietan daudenak, etorkinak eta emakumezkoak) lehentasunezko ekintzak garatzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Dauden baliabideetara bidea erraztea eta beharrezkoa izango balitz beste berri batzuk sortzea.
- Bizitegi-eremuak bermatzen dituzten neurriak erraztea.
- Dauden gizarte-laguntza eta laguntza ekonomikoen baliabideak eskuratzeko eskubidea erraztea eta bermatzea.

Arduradunak

Dauden disfuntzioak konpontzeko ardura hartu behar duten egiturak Bideberri Mankomunitateko oinarritzko zerbitzuak (Osasunekoa, gizarte-zerbitzuak, hezkuntzakoa, lan mailakoa eta judiziala) dira.

5.5. Landu beharreko arloa: **BABESA ETA KOORDINAZIOA**

Justifikazioa

Drogamenpekotasunen fenomenoak emateko hamaika arrazoi daudenez ezin izango da inoiz eten bide bakarretik aurre eginda. Beraz, koordinazioa ezinbesteko osagai bezala ulertzen da fenomenoari aurre egiteko modu integratuan, jarduteko estrategia desberdinak erabiliz, erakundeen arteko laguntzaz eta gizarte-ekimenaren babesaz.

Helburu espezifikoak

- Instituzioak, erakundeak eta talde teknikoak garatutako ekintzen koherentzia eta laguntza erraztea.
- Egindako programen antolaketa, diseinu, formulazio, gestio eta ebaluazioa hobetzeko estrategiak abian jartzea.

Garatu beharreko ekintzak

- Jarduteko arlo desberdinak koordinatzea (prebentzioa, eskaintzaren kontrola, laguntza, gizarteratzea).
- Prozesuan parte hartzen duten eragileak koordinatzea, erakunde publikoak izan zein erakunde pribatuak izan edota pertsonak.
- Baliabideen erabilera optimizatzea.

Arduradunak

Koordinazio eremua transbertsala da, gainerako eremuak hartzen ditu eta euren menpe dago. Plan Lokala aurrera eramateko beharrezkoak diren harremanak ahalbidetuko duen tresna da.

6. Ebaluazioa

Ebaluazioa landu beharreko arlo guztien estrategia transbertsala da eta honetarako balio du:

- Programak eta jarduerak planifikatzeko
- Proposatutako helburuak bete diren ala ez jakiteko
- Etorrizunean proiektuak egiteko erabakiak hartzen laguntzeko